

Balorezko Proposamena

Saiagela adintsua arropa denden merkatua berreboluzionatu egingo du.

Saiagela adintsuak eskaner bat izango du, eta gailu honek jantzien ticketak eskaneatuko ditu, gero irudikatuko da pantailan jantzita, eskaneatutako arroparekin. Hau da, bezeroek arropa frogatzeko ahalmena izango dute fisikoki jantzeko beharrik gabe.

Bezeroei ahalbidetuko die erosketa modu erosoago batean egitea. Aldi berean, neurri egokietako arropa aukeratzeko lagunduko die gure proiektuak erosleari jakinarazten arropak noiz diren handiegiak, txikiegiak, forma ezegonkorrak, etab. Adimen artifizialaren bitartez, saiagelak gomendioak egingo dizkie bezeroei ze nolako neurriak dauzkaten. Ildo beretik, adimen honek denden dauden antzeko arropak gomendatuko dio bezeroei, konjuntioak aukeratzeko laguntzen. Saiagelak bi kamara dituenez, bat aurrealdean eta bestea atzekaldean, erosleek bai aurretik bai atzetik ikusteko gaitasuna izango dute. Bitxikeri honek.

Dendek ekidituko dute bezeroek frogatzen duten arropen garbiketa, erosketak erraztuko eta bizkortu egingo ditu eta denden berezitasuna handituko ditu.

Gure produktuak dirua aurrezten dio enpresei garbigailuen aldetik. Saiagelak jantzietako ticketak soilik erabiltzen dutenez, ez da beharrezkoa arropa janzte-eraz, diru gutxiago gastatu beharko lukete enpresek arropa hori garbitzeko. Ere, dirua aurreztean kostuak txikiagoak izateagatik, dendek bere arropa merkeago saltzeko gaitasuna izango lukete, lehiakideak baino lehiakorragoak izaten.

Aldi berean, ezaugarri honek dendaren itxura modernoagoa bihurtuko du. Honek bezero ikusnahi asko ekarriko ditu dendara, diru-sarrerak handitzen eta bezero leialen kopurua ere.

Gure produktuari dagokionez, errazagoa izango da desgaitasuna duten pertsonentzat janztea.

